

# BALIO PROPOSAMENA

Gure produktua, Sordomusic deiturikoa, gorrentzako aplikazio bat da non edozein aparatu elektronikoa musikaren dardarak sentitu ditzazkezu eta horrela musikaz goza dezakezu.

Aplikazio hau App Store-etik eta Play Store-tik deskargatu dezakezu. Erloju inteligente edota mugikorretan instalatua izan daitekeena.

Aplikazioan sartzerakoan borobil bat egongo da gure logoarekin. Borobil honek musika entzungo du eta abestiaren izenburua, egilea, letra etab.

ZERGATIK→ Festa batean pentsatu genuen eta bat-batean norbaiti bururatu zitzaion ea zergatik gorrak ezin zuten diskotekara joan, eta hor bururatu zitzaigun aplikazio bat sortzea, gorrak musika goza dezaten.

Gure produktua gorrentzako abantaila bat da. Haiek musika transmititzen dituen dardarak sentitzeko aparatu elektronikoa baten bidez.

Arazo nagusia gorrek musika ezin dutela entzun eta sentitu da, honen bidez, gorrek musikaren erritmoa dardaren bidez sentitu ahal izango dute. Horrela diskotekara joan daitezke eta dagoen abestiaren erritmoa sentitu dezakete. Gainera aplikazioan zenbait modu desberdin daude, adibidez, abestiaren dardarak bakarrik sentitzea, edo musikaren letra irakurtzea.

NOLA→ Berritasuna da, ordura arte ez zeuden beharrak asetzen dituzten balio proposamenak. Kontsumitzaileak ez zuen behar hori sentitzen, asetuko zuen proposamenik ez zegoelako.

ZER→ Aplikazio barrura sartzen zarenean jarrita dagoen abestia antzemateko shazam moduko zerbait aterako da eta horrek musika antzematerakoan hiru aukera emango dizkizu:

- ★ Musikaren erritmoa sentitu.
- ★ Abestiaren letra agertuko da eta irakurri ahal izango duzu.
- ★ Biak batera, hau da, musika sentitu eta letra irakurri dezakezu.

Hortaz aparte, antzematen diren abestiak gordetzen dira eta zure gogokoen zerrendan gorde ahal izango dituzu.